# [Eusk/Cast] Txantreako auzotik, eskerrik asko Patxi!

EX-PRESOS Y PRESAS POLITICAS VASCAS DE LA TXANTREA :: 18/06/2020

Aspiramos a generar una nueva dinámica que sumar a las ya existentes, bajo las premisas de hacer al pueblo protagonista en la pelea por traer a casa a tod@s l@s represaliad@s

**[Euskara]**

**Txantreako auzotik, eskerrik asko Patxi!**

Euskal Herriko herri eta auzo askotako kaleak, asteak daramate ekimenez josita. Oinarrizko eskubideak diren euskal preso politiko guztien eskubideen errespetutik hasi, eta zilegia den amnistia bezalako helburuetarainoko aldarrikapenak eginez.

Covid-19a eteteko, Estatu espainiar zein frantsesek espetxeetan ezarritako baldintza gogor eta bidegabeek preso guztien egoera larriagotu zuten. Eta beste behin, euskal preso politikoen eskubideen urraketa bereziki areagotzeko baliatu zuten.

Martxoaren 14an Estatu espainiarrak presoen eskubideak eta askatasunak zapaltzen dituen “alarma egoera” dekretatzen du. Presoen osasuna eta segurtasunaren izenean egiten duela esaten du. Baina, sektore zaugarrienak espetxean mantentzeak, presoei muxukoak eskuratzeko aukera ukatzeak, edota espetxeko ehunka funtzionario egunero joan-etorrian egoteak, emandako argudioa hankaz gora jartzen du.

Bitartean kalean, “alarma egoera”ren ondorioz, Euskal Herriko sektore aktiboenek mugatua genuen guztiz eragiteko ahalmena. Koronabirusaren bapateko ondorioak arintzen aritu ginen lanean herri eta auzoetan. Eta Covid-19ak gerora utziko zituen ondorio suntsitzaileen aurrean prestatzen hasi ginen.

“Alarma egoera”ren ezarpenak eskubide eta askatasun guztien aurkako eraso bat izan zen. Estatuaren figura indartzeko konfinamendu eredua ezarriz gainera. Horrek, osasun krisi baten aurrean, militarrak eta poliziak lehen lerroan jartzea ekarri zuen. Eta herritarren eta langileen eskubideak zapaltzea, kapitalaren mesedetan.

Hau guztia kalean gertatu bazen, uniformedun guztien intentzionalitatea begi-bistakoa denean; zer ez zen gertatuko espetxeetan, inpunitate-guneak mila aldiz gehiago direnean?

Kezka hori agerikoa zen, eta “alarma egoera”k ekartzen zuen neurri berri bakoitzarekin areagotzen zen. Ezartzen zituzten neurri eta plan guztiek euskal preso politikoak kolektibo kaltetuena bilakatzen zuten.

Bistakoa zen espetxeetan gertatzen ari zenaren larritasuna. Euskal preso politikoak bisitarik gabe zirela bagenekien; eskubideak zapaldurik zituztela; eta bitartean, behin ere ez zen deialdi orokorrik egin auzo eta herrietan, espetxeetan bizi zen egoera tamalgarria salatzeko.

Asteetan kaleak, gure aldarrikapenak plazaratzeko gune naturalak, isilik egon ziren.

Balkoiak eta sare sozialak bilakatu ziren militatzen jarraitzeko espazioak. Denbora guzti honetan espetxeetan ematen ari zen egoera larria, eztabaida politikoaren erdigunean ez jartzea ez zen akats bat izan, erabaki politikoa baizik.

Kontuz! Erabaki politiko honek ez du esan nahi, ezer egin ezin zenik. Kontrakoa, bi hilabeteetan ekimen ezberdinak egosten joan ziren. Horien artean, giza eskubideen defentsan aritzen diren 25 erakundek maiatzan bultzaturiko ekimena; SOSPresoakCovid19 bezalako dinamika; edota espainiar kongresuan 9 erakunde politikok babestutako manifestua.

Baina aipatutako erabaki politikoak, euskal preso politikoen bizi baldintzen larriagotzea salatzerakoan, parametro zehatz batzuetan egitea suposatzen zuen. Protagonismo mingarria emanez EAJ-ri, dispertsio politika bultzatu zuenetako bati. Edo Podemos-i, Espainiar Gobernuan dagoen alderdiari, konponbidearen parte izan nahi ezean, arazoaren parte izango dena.

Presoen aferan, aurrerapausoak ezberdinen arteko adostasunean kokatzea garrantzitsua da. Baina termino baztertzaileetan eginez gero akatsa dela deritzogu. Onartezina da, adostasun horiek, aurrerapauso horiek eman daitezen, euskal herritarrek jokatu beharreko papera mugatua izan behar duela babesten duen tesia. Kezkagarria da, herriratzearen bidean lortutako espazioak eta akordioak, salaketarako erabilitako formen ondorioz kaltetzen ahal direla irakurtzea. Larria, horrek suposatzen baitu, puzzlearen piezak elkarren ondoan jarraitu ahal izateko, kalean eman daitekeen tentsionamendua baldintzatua egotea guztiz.

Testuinguru honetan, espainiar zein frantses gobernuek beste behin euskal preso politikoen aurkako salbuespenezko espetxe politika ezarri eta BI HILABETE BERANDUAGO!; maiatzaren 10ean, Txantreako auzokidea eta euskal preso politikoa den Patxi Ruiz-ek: ASKI DA! esan zuen. Aski da, ez soilik bere pertsonaren aurkako jokabide zehatz bati; Aski da, Covid-19-aren krisia gertatu bitartean espetxeetan ezarritako neurri guztiei.

Patxi, gose eta egarri greban jartzeak alarma guztiak piztu zituen. Euskal errepresaliatu politikoen auzia konponbidean jartzeko ikuspegi ezberdinak dituzten bi estrategien arteko kontraesana areagotu zen.

Baina, Patxi Ruizek abian jarritako borrokaldiak ez du arazorik eragin gure iritziz. Kontrakoa, pizgarri bat izan da. Ziur gaude, berak abian jarritako ekimenik gabe, “alarma egoera”k espetxeetan eragindako ondorioek ez luketela herritarrengan oihartzunik edukiko. Hori eta ondorengo erantzun herritarra dira termino politikoetan Patxiren ekimenari egotzi ahal zaizkion garaipen nagusiak. Albiste pozgarria izan da guretzat gose greba bertan behera uzten zuela jakitea. Baina gurentzat garrantzitsua da Kapotari ere esatea: aurrera jarraituko dugula. Lekukoa hartzen dugula eta elkarrekin arituko garela lanean eta borrokan.

Une zailenak behin gaindituta, dinamika hau martxan jarri genuen Txantreako preso ohiek aurrera jarraitzeko apostua egiten dugu. Lanari jarraipena emango diogu era positiboan, azken hilabetetan pilatutako esperientzia eta harreman onetan oinarrituta.

Maiatzaren 22an lehen ekimena jarri genuen abian. 300 preso ohi inguru batu ziren, modu

ezberdinean. Ekimena, une zehatz batean, Patxi Ruizek abian jarritako dinamika testuinguruan jartzeko ekimena izan zen. Horregatik amaitutzat ematen dugu.

Ondoren, ekimen mobilizatzaile ezberdinak bultzatu ditugu. Inoren lana interferitu nahian, baina inoren interferentziarik onartuz. “Euskal Preso Politikoen Alde, Patxirekin bat!” izan da erabili dugun marka, bakarrak izan ez garen arren, ezaugarritu gaituena.

Eta Patxiren aldarrikapenekin eta borrokarekin bat egin nahi zutenekin, manifestu bat jarri genuen martxan.

Gaur argi utzi nahi dugu, manifestu horren edukia garrantzitsua iruditu zitzaigula bere momentuan; eta egun uste dugu gaurkotasuna mantentzen duela. Euskal preso politiko GUZTIEKIN konpromisoa adierazten duen manifestua da. Dagozkien eskubide guztien defentsarako; eskubideen zapalketaren salaketarako; eta Euskal Herriratzea exijitzeko konpromisoa. **Manifestuak**, **espetxeetako auzia beste perspektiba batekin lantzeko konpromisoak behar ditu. ZURE BABESA ETA KONPROMISOA BEHAR DUGU, ORAIN INOIZ BAINO GEHIAGO.** (sinadura emateko **patxisos.wordpress.com** helbidean sartu)

Txantreako preso ohi bezala, harro gaude auzokideek egin duzuen lanarekin. Urtetan auzo mailan egin den lanaren jarraipena besterik ez da izan dinamika honi egin diogun ekarpena. Gure auzoko kasua ez da bakarra, badakigu. Auzoak hasieratik argi izan du ez zela dinamika antzuetan murgilduko, ez zela behartuta egongo auzoko zein presokin egingo zuen lan aukeratzera.

Gure guda Estatuarekin da. Euskal preso politikoen egoera aldatzeko gaitasuna duten baina egiten ez duten instituzio, pertsona eta eragileekin. Espainiar zein frantses espetxetan praktikatzen den politika suntzitzaileari amaiera eman nahi ez diotenekin.

Orain arte egindako bideak, errepresaliatuen eta Euskal Herriratzearen gaia beste perspektiba batetik lantzeko borondatea dagoela erakutsi digu. Aktibazioa bultzatuz, eta jendea eta militantziari protagonismoa emanez. Behar denean kalea diskurtsoan eta forman tentsionatuz.

Horren adibiderik argiena, Patxi Ruizek gose greba behin utzita eman den bapateko erreakzioa. Ekimenarekin bat egin duen jende askok interpelatu gaitu: “Eta orain zer?” “Nola jarraituko dugu?”. Bere garaian, Patxi Ruizen egoerarekin konpromiso zehatza eskatzen zuen ekimena jarri genuen abian. Baina konpromiso hori haratago zihoan, euskal preso politiko guztien aldeko lanean aktiboak gehitzea bilatzen zuen. Eta lekukoa hartzeko sektoreak badirela egiaztatu ahal izan dugu. Horregatik, aurrera jarraitzen dugu.

Lehenik, eta oraingoan auzoko herri mugimenduko kide moduan, Txantrean antolatuko diren ekimen eta mobilizazio ezberdinetan parte hartzera dei berezia egiten dugu. Ekimen hauek, auzo oso batek euskal preso politiko guztiekiko duen konpromezua berresteko balio behar dutela ulertzen dugu. Baina baita ere, euskal preso politko guztien aldeko dinamika ulertzeko eta garatzeko modu bat babestu eta indartzeko.

Amaitzeko esan, uda aprobetxatuko dugula abian jarritako lanari zer nolako jarraipena

emango diogun argitzeko. Oraingoan bai, eztabaida eta parte hartzea ahalik eta gehien zabalduz. Euskal errepresaliatuen etxeratzearen alde egon daitezkeen dinamikei, dinamika berri bat batu nahi diogu, herria protagonista izango duena. Aktibazio soziala, Estatuekiko konfrontazioa, eta euskal presoei ezartzen zaien “gerra-bahituen” politikaren arduradun politikoen salaketa bultzatuz.

Adi deialdietara! Euskal preso politikoen alde, Patxirekin bat!

---

**[Castellano]**

**DESDE EL BARRIO DE LA TXANTREA, ESKERRIK ASKO PATXI!**

Las calles de muchos pueblos y barrios de Euskal Herria llevan semanas cargadas de iniciativas. Se reivindica desde principios tan básicos como el respeto a los derechos de todos los presos y presas politicas vascas, hasta aspiraciones tan legítimas como la amnistía.

Las durísimas e injustas condiciones que los estados español y francés impusieron en las cárceles para frenar el Covid – 19, agravaron la situación del conjunto de presos. Y nuevamente sirvieron para vulnerar de forma particularmente dura los derechos de los prisioneros y las prisioneras políticas vascas.

El 14 de marzo el estado español decreta un estado de alarma que pisotea sin ningún miramiento derechos y libertades dentro de las prisiones. Dice hacerlo en nombre de la salud y seguridad de los y las presas. Pero mantener a los sectores más vulnerables en prisión, negar a los presos el acceso a mascarillas o tener a centenares de funcionarios de prisiones entrando y saliendo a diario de las cárceles desmiente este argumento.

Mientras, los sectores más activos de Euskal Herria teníamos un campo de actuación limitadísimo en las calles por los efectos del estado de alarma. Trabajábamos sin descanso por tratar de paliar las consecuencias más inmediatas del Coronavirus en nuestros pueblos y barrios. Y nos preparábamos para los efectos devastadores que el Covid – 19 iba a dejar a su paso.

La implantación del estado de alarma supuso en la calle un ataque en toda regla a los derechos y las libertades. Una ocasión que aprovecharon para implantar un modelo de confinamiento pensado para fortalecer la figura del estado. Eso supuso poner a militares y policías al frente de una crisis sanitaria. Y pisotear los derechos de ciudadanía y trabajadores, anteponiendo siempre los intereses del capital.

Y si esto ocurrió en la calle, donde es perfectamente visible y constatable la intencionalidad con la que los distintos uniformados actúan ¿Qué no podía estar pasando en las prisiones, donde los espacios de impunidad se multiplican por mil?

Esa preocupación era manifiesta y se acrecentaba con cada nueva medida del estado de alarma. Planes que siempre terminaban convirtiendo a los y las presas políticas vascas en uno de los colectivos más perjudicados por todas y cada una de las normas que se iban

adoptando.

Era latente la gravedad de lo que estaba ocurriendo en las prisiones. Todos y todas sabíamos que los y las presas políticas vascas no recibían visitas. Que sus derechos habían sido pisoteados. Y sin embargo no hubo una sola ocasión en la que se hiciese un llamamiento general a denunciar en los pueblos y en los barrios el particular drama que se vivía en las cárceles.

Durante semanas las calles, el espacio natural para plasmar nuestras reivindicaciones permanecieron cerradas a cal y canto. Los balcones y las redes se convirtieron de hecho en los escenarios desde los que seguir militando. Y en todo ese tiempo no poner el acento en la gravedad de lo que estaba ocurriendo en las prisiones no fue un error, fue una decisión política.

¡Ojo! Esa decisión política no conllevaba no hacer nada. Al contrario. Durante dos meses se fueron gestando inciativas de gran calado. Iniciativas como la impulsada por más de 25 organizaciones sociales vinculadas a los derechos humanos de finales de mayo. Dinámicas como SOSPresoakCovid19 o el manifiesto respaldado por 9 formaciones políticas representadas en el congreso español.

Pero la decisión política sí implicaba que las iniciativas para denunciar el agravamiento en las condiciones de vida de los y las presas políticas vascas se desarrollasen siempre bajo unos mismos parámetros. Dando un protagonismo hiriente y permitiendo una lavada de cara a partidos como el PNV, uno de los impulsores de la política de dispersión de presos. O a Podemos, partido en el gobierno que hasta que no decida ser parte de la solución, continuará siendo parte del problema.

Situar los avances en materia de presos en términos de acuerdo entre diferentes es importantísimo. Pero entendemos que es un error si esto se hace en términos excluyentes. Es inasumible la tesis de que esos acuerdos, esos avances tienen como condición sine quanum una limitación del papel que la ciudanía vasca puede llegar a tener. Es preocupante leer que los espacios y acuerdos ganados en el camino de la repatriación, pueden resultar perjudicados por el uso de determinadas formas de denuncia. Grave porque eso supone de facto tratar de acotar hasta límites ridículos el tensionamiento que en la calle se puede o se debe poder hacer, para que las piezas del puzzle puedan así seguir encajando.

En medio de este contexto, el 10 de mayo ¡DOS MESES DESPUÉS! de que los estados español y francés volviesen de nuevo y de forma premeditada a aplicar una política carcelaria excepcional a los y las prisioneras vascas, el vecino y preso político de la Txantrea Patxi Ruiz, dijo

¡basta!. No solo a una actuación concreta contra su persona, sino basta a toda una batería de medidas impuestas en las cárceles durante la crisis del Covid – 19.

El arranque de forma paralela de una huelga de hambre y de sed disparó de forma inmediata todas las alarmas. Hizo que se agudizaran las contradicciones entre dos estrategias distintas que además tienen enfoques muy diferentes con respecto a la vía para resolver la cuestión de los y las represaliadas políticas vascas.

Pero la pelea iniciada por Patxi Ruiz no ha sido a nuestro entender el desencadenante de ningún problema. Ha supuesto por el contrario un revulsivo. Estamos convencidas de que de cara a la población, los efectos del estado de alarma en las prisiones hubiesen pasado desapercibidos sin la iniciativa que él puso en marcha. Ese y la posterior reacción popular son en términos políticos los grandes triunfos que cabe atribuir a la iniciativa de Patxi. No hay mejor noticia para nosotros que haber conocido que dejaba la huelga de hambre. Pero para nosotros es además fundamental poder transmitir a Kapota que patadón y para adelante. Que recogemos su testigo y que nos alegra profundamente su decisión porque eso nos permite seguir trabajando y peleando codo con codo.

Una vez superados los momentos más críticos, los ex – presos y ex – presas de la Txantrea pusimos en marcha esta dinámica apostamos por tirar para adelante. Por dar continuidad a un trabajo en positivo, cuyas bases serán las buenas relaciones y experiencias acumuladas este último mes.

El 22 de mayo pusimos en marcha una primera iniciativa a la que de distintas formas se han ido sumando cerca de 300 ex – presos y ex – presas políticas vascas. Una iniciativa que damos ya por finalizada, al entender que cumplía en un momento muy determinado una función clave para contextualizar la dinámica iniciada por Patxi Ruiz.

Posteriormente hemos impulsado distintas iniciativas en el plano movilizador, siempre tratando de no interferir en el trabajo de nadie, pero igualmente sin admitir interferencias en el nuestro. Euskal Preso Politikoen Alde, Patxirekin bat! ha sido una marca de trabajo que sin ser exclusiva, nos ha caracterizado.

Y en un momento en que entendimos era clave buscar compromisos con los contenidos de las reivindicaciones de Patxi y con su lucha, pusimos en marcha un manifiesto para recabar apoyos

entre todas aquellas personas que quisieran sumarse.

Hoy queremos dejar claro que ese Manifiesto y sus contenidos no solo nos parecieron importantes en su momento, sino que entendemos mantienen su vigencia. Es un manifiesto construido sobre los pilares del compromiso con TODOS los y las presas políticas vascas. Compromiso en la defensa de todos sus derechos, la denuncia de su vulneración y la exigencia de su repatriación a Euskal Herria. **Es un manifiesto que necesita seguir sumando compromisos para trabajar la problemática de las cárceles con otra perspectiva. SEGUIMOS, AHORA MÁS QUE NUNCA, NECESITANDO TU APOYO Y COMPROMISO.** (Para firmar entra en **patxisos.wordpress.com**)

Como ex presos y ex -presas políticas del barrio de la Txantrea nos sentimos orgullosos y orgullosas del trabajo que ha hecho nuestro barrio. Nuestra aportación a toda esta dinámica es en realidad la prolongación de un trabajo desarrollado a nivel local desde hace años. Sabemos que el caso de nuestro barrio no es único. Un barrio que tuvo claro desde el primer momento que no se iba a involucrar en dinámicas absurdas que le obligasen a elegir con qué presos del barrio tenía o podía trabajar.

Nuestra guerra es con el estado. Contra todas aquellas instituciones, personas y colectivos

que tienen el poder de cambiar la realidad de los y las presas políticas vascas. Contra aquellos que no dan pasos efectivos para poner punto y final a la política de exterminio que se practica en las prisiones españolas y francesas.

El recorrido hecho hasta ahora nos ha permitido constatar que existe voluntad por trabajar el tema del conjunto de represaliados y su vuelta a Euskal Herria desde otra perspectiva. Buscando una activación y un protagonismo real de la gente y la militancia en esta pelea. Tensionando la calle en discurso y formas cuando las situaciones lo requieran.

La mejor prueba de ello ha sido la inmediata reacción que se ha producido tras dejar Patxi la huelga de hambre. Mucha de la gente que se ha ido sumando a las iniciativas que hemos ido planteando nos ha interpelado ¿Y ahora qué? ¿Cómo seguimos?. En su momento propusimos una iniciativa que activaba un compromiso particular con la situación de Patxi Ruiz. Pero un compromiso que iba más allá y buscaba sumar activos al trabajo en favor de todos los presos y presas políticas vascas. Y hemos podido constatar que hay sectores dispuestos a recoger ese guante. Por tanto, seguimos adelante.

En primer lugar y esta vez como integrantes del movimiento popular del barrio, hacemos un llamamiento especial a participar en las movilizaciones que en próximas fechas se vayan organizando. en la Txantrea. Entendemos que estas deben servir para reafirmar el compromiso de todo un barrio con el conjunto de presos y presas políticas vascas Pero también para avalar y fortalecer una forma de entender y desarrollar la dinámica en favor de todos los y las presas políticas vascas que sabemos no es exclusiva de nuestro barrio.

Por último anunciar que aprovecharemos el verano para tratar de clarificar como dar continuidad al trabajo iniciado. Esta vez sí abriendo el debate y la participación lo más posible. Aspiramos a generar una nueva dinámica que sumar a las ya existentes, bajo las premisas de hacer al pueblo protagonista en la pelea por traer a casa a todos los y las represaliadas políticas. Potenciando la activación social, la confrontación con los estados y la denuncia de los distintos responsables de la política de rehenes de guerra que se aplica a los presos y presas políticas vascas.

¡Atentos a las convocatorias!

Euskal Preso Politikoen alde, Patxirekin bat!

---

*https://eh.lahaine.org/eusk-cast-txantreako-auzotik-eskerrik*